

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Josefina Mota Bilbao

*Getxo, Bizkaia
(1923)*

Aurkibidea



Biografia



Laukizko Mendiondo auzoko Kurtimintu erroan jaio zen 1923an. Aita erroan jaiotakoa zen eta bertako kanteran lan egiten zuen. 18 neba-arrebatatik, bera hirugarrena izan zen. Zazpi urte zituela, ama hil eta aitak ezin zituenez denak etxean mantendu, Getxoko baserri batera bidali zuten neskame. Bertan, umeak jagoteaz gain, ugazaba-andrearekin batera esne-saltzaile moduan ere jarduten zuen. Bere ugazaba-andrea eta bertako seme-alabak bere familia izango balira bezala maite zituela kontatu zigun eta hasieran hizkuntzarekin izandako arazoak ere aipatzen ditu. Haiekin hamar urte egon ondoren, 20 urte zituela, Ebaristo Kamiroaga gudariarekin ezkondu eta seme bat izan zuten. Laukizen jaio zen arren, umetatik Getxon bizi izan zen eta hitz egiterakoan bertako euskara egiten duela nabaritzen da. Bere ahizpa [Manolik](#), aldiz, urte gehiago bizi izan ditu Laukizen eta etxeko euskara mantendu du.

Zintak

GTX-003

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-11-21
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

GTX-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-11-21
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com